

## BESTELAKO XEDAPENAK

### KULTURA SAILA

# 193

*AGINDUA, 2011ko azaroaren 23koa, Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko dena.*

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritz, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 artikulua arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari.

Goi-mailako kirolari eta teknikarien deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2011ko azaroaren 22an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari eta teknikari, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazio hau indarrean sartuko da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio kulturako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera.

2012ko urtarrilaren 13a, ostirala

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 23a.

Kulturako sailburua,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

2012ko urtarrilaren 13a, ostirala

## I. ERANSKINA

## Kirolariak

Abizenak eta izena	Espediente zk.	Modalitatea
Garcia Galarraga, Maialen	181/11/D	Belarretako Hockeya
Granados Alkorta, Amador	180/11/D	Txirrindularitza (Egokitua)
Sacristan Landaberea, Aitzol	182/11/D	Borroka Eta Sanboa
Diaz Perez, Jon Ander	184/11/D	Arraunketa
Iradi Serrano, Imanol	186/11/D	Arraunketa
Ruiz de Arechavaleta Perez, Xabier	183/11/D	Piraguismoa
Doncel Barneçilla, Leire	189/11/D	Taekwondo
Pinedo Saenz, Elizabeth	188/11/D	Eskubaloia
Otaño Aguinaga, Jone	192/11/D	Piraguismoa
Ergüin Bolibar, Jon	193/11/D	Piraguismoa
Jauregui Arrondo, Xabier	190/11/D	Piraguismoa
Olazabal Sanchez, Telmo	191/11/D	Piraguismoa
Gomez Rodriguez, Naiara	194/11/D	Piraguismoa
Beltran de Heredia Barruso, Ania	199/11/D	Igeriketa (Egokitua)
Benavente Babace, Amaia	197/11/D	Piraguismoa
Carballo Moreda, Ion	198/11/D	Piraguismoa
Gutierrez Refoyo, Cristina	195/11/D	Arrantza
Lazcano Guimerans, Begoña	196/11/D	Piraguismoa

## Teknikariak

Abizenak eta izena	Espediente zk.	Modalitatea
Artolazabal Royo, Ainhoa	30/11/T	Txirrindularitza (Egokitua)
Alcorta Aguirreberea, Olatz	31/11/T	Piraguismoa
Saies Alzua, Joseba	33/11/T	Piraguismoa